Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava
www.alava.net

**INFORMACIÓN 2022**

**Ayudas a la reestructuración y/o reconversión de viñedos**

Una vez finalizado el régimen de ayudas 2014-2018, la Comisión Europea aprueba el **NUEVO PROGRAMA DE APOYO** al sector vitivinícola 2019-2023 con **importantes cambios a tener en cuenta en la normativa** básica aplicable.

La medida de Reestructuracion y/o reconversión de viñedo se llevara a efecto a través de SOLICITUDES que contendrán las correspondientes OPERACIONES a realizar, con el detalle de todas las acciones que se llevarán a cabo para conseguir la Reestructuración y/o reconversión de una superficie de viñedo.

¿Cómo solicitar las ayudas?

La solcitud de ayuda se presentara en dos fases diferentes:

1. **SOLICITUD INICIAL**

Las Solicitudes podrán contener operaciones anuales sin que puedan ejecutarse y solicitar el pago más allá del 31 de julio de 2023.

**FECHA DE SOLICITUDES**: desde el 18 de octubre hasta el 26 de noviembre de 2021

La presentación de solicitudes podrá hacerse de forma presencial o telemática.

Además, si se va a solicitar **anticipo** para alguna de las operaciones incluidas en la solicitud inicial, deberá indicar la cuantía del anticipo y el ejercicio financiero en el que se va a solicitar el pago del mismo (máximo 2023)

Una vez finalizado el plazo de presentación de solicitudes la DFA dispone de 6 meses para su aprobación, **sin que dicha aprobación suponga ningún compromiso futuro de gasto por parte de la administración.**

Una vez aprobadas las operaciones de las solicitudes 2022, si se pretende la **RENUNCIA** a la ejecución de alguna de ellas, el plazo establecido para comunicarlo

**2022ko INFORMAZIOA**

**Mahastiak berregituratzeko edota eraberritzeko laguntzak**

2014-2018 aldiko laguntzen araubidea amaitutakoan Europako Batzordeak 2019-2023 aldian mahastizaintza eta ardogintzako sektorea bultzatzeko **LAGUNTZEN PROGRAMA** onetsi du; ondorioz, **aldaketa garrantzitsuak izan dira oinarrizko araudian.**

Mahastiak berregituratzeko eta birmoldatzeko neurria gauzatzeko, ESKAERAK egingo dira, non egin beharreko ERAGIKETAK jasoko baitira, mahasti azalera bat berregituratzea eta birmoldatzea lortzeko egingo diren ekintza guztiak zehaztuta.

Nola eskatu behar da laguntza?

Laguntza jasotzeko eskaerak bi fase izango ditu:

2. **HASIERAKO ESKAERA**

Eskaeretan urteko eragiketak jaso daitezke, eta inola ere ezingo da 2023ko uztailaren 31a baino geroago ordainketa eskatu.

**ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA:** 2021eko urriaren 18tik azaroaren 26ra

Eskabideak bitarteko elektronikoen bidez nahiz aurrez aurre aurkeztu daitezke.

Gainera, hasierako eskaerako eragiketetako bat egiteko **aurrerakina** eskatzeko asmorik bada, zenbatekoa zehaztu beharko da eta argitu beharko da zer finantza ekitalditan eskatuko den ordaintzeko (2023. urtea beranduenez).

Eskaerak aurkezteko aldia amaitu ondoren AFAk sei hilabete edukiko ditu onartzeko, baina **onarpen horrek ez du esan nahi administrazioak etorkizunean gastua egiteko konpromisoa hartuko duenik**.

2022eko eskaeren eragiketak onartu ondoren, horietakoren bat gauzatzeari **UKO EGIN** nahi bazaio, horren berri emateko epea 15 egunekoa izango da, laguntza onartzen duen ebazpena jakinarazten den

es de 15 días después de la fecha de notificación de la resolución aprobatoria de la ayuda. Si no comunica la renuncia o lo hace fuera de plazo establecido, perdería la condición de beneficiario, salvo causas de fuerza mayor o circunstancias excepcionales que establezca la normativa.

egunetik zenbatzen hasita. Uko egiten duzula jakinarazten ez baduzu edo ezarritako epetik kanpo egiten baduzu, onuradun izateari utziko diozu, araudiak ezartzen dituen ezinbesteko kasuetan edo salbuespenezko egoeretan izan ezik.

Recordar la posibilidad de solicitar **acta previa de "no inicio de acciones"** para poder autorizarse, si procede, el comienzo de las labores con anterioridad al periodo general establecido y/ o la aprobación del plan. PLAZO PARA ACTA PREVIA SOLO **del 18 de octubre al 5 de noviembre**

Gogoan eduki aukera dagoela **"ekintzak hasi ez izana" ziurtatzeko aurretiazko akta** eskatzeko, hartara, egoki bada, baimena eman dadin ezarritako aldi orokorra edota plana onartu baino lehen lanean hasteko. AURRETIAZKO AKTA ESKATZEKO EPEA: **urriaren 18tik azaroaren 5era.**

## Documentación necesaria para realizar la solicitud inicial de ayuda

1. Impreso de **solicitud de ayuda** firmada y cumplimentada.
2. Impreso de **memoria individual** firmada y cumplimentada.
3. Impreso de **declaración jurada** de no tener viñedo ilegal y compromiso de cumplimiento de la legislación vigente.
4. **DNI/NIF y TARJETA DE EXPLOTACION**
5. Fotocopia de la **libreta bancaria** con número de cuenta Certificado de la entidad bancaria.
6. En caso de que la operación solicitada incluya la realización de algún arranque, copia de la autorización del mismo.
7. En el caso de que la persona solicitante no sea la misma que figure como propietaria en catastro, **acreditación de la disponibilidad** de las fincas objeto de ayuda.
8. En el caso de que el solicitante sea **una persona jurídica**, presenta autorización de firma o acuerdo de los socios que constituyen la sociedad solicitante.

## Laguntzaren hasierako eskaera egiteko behar den dokumentazioa

1. **Laguntza eskatzeko** inprimakia, beteta eta sinatuta.
2. **Banakako memoriaren** inprimakia, sinatuta eta beteta.
3. Eskatzaileak legez kanpoko mahastirik ez daukala dioen **zinpeko adierazpena** eta indarreko legeria betetzeko konpromisoa.
4. **NANa/IFZ eta USTIAPEN TXARTELA**
5. **Banketxeko libretaren** fotokopia, kontuaren zenbakiarekin (bankuaren ziurtagiria).
6. Eskaerako eragiketan mahatsondorik erauzi behar bada, horretarako baimenaren kopia.
7. Baldin eta eskatzailea ez bada katastroan jabe gisa ageri den pertsona, laguntzaren xede diren finken erabilgarritasunaren **egiaztagiria**.
8. Eskatzailea **pertsona juridikoa** bada, laguntza eskatzen duen sozietateko bazkideen sinatzeko baimena edo akordioa.

9. **Solicitud de autorización** de inicio de acciones en el caso de inicio de acciones antes de la aprobación del plan.

9. Ekintzak plana onartu aurretik hasi badira, horretarako **baimenaren eskaera**.

En caso de formar parte de UNA SOLICITUD COLECTIVA,la documentación será la misma, y deberá ser gestionada por el/la representante de la solicitud.

ESKAERA KOLEKTIBOA aurkeztuz gero, aurreko dokumentazio bera aurkeztu beharko da, eta eskaeraren ordezkariak kudeatu beharko du.

| Requisitos de los beneficiarios | Onuradunen betekizunak |
| --- | --- |
| 1. Ser titular de una explotación agraria inscrita en el correspondiente Registro Oficial. | 1. Dagokion erregistro Ofizialean inskribatuta dagoen nekazaritza ustiategiaren titularra izatea. |
| 2. Presentar, individual o colectivamente, las solicitudes de ayuda en el plazo y forma establecidos. | 2. Laguntza eskaerak, banaka edo taldeka, ezarritako epean eta moduan aurkeztea. |
| 3. Tener regularizadas la totalidad de sus parcelas conforme a lo previsto en la normativa vigente. | 3. Lurzati guztiak erregularizatuta izatea indarreko arautegiak ezartzen duenarekin bat etorriz. |

| Obligaciones de los beneficiarios | Onuradunen betebeharrak |
| --- | --- |
| 1. Comunicar con antelación suficiente al Servicio de Viticultura y Enología la fecha de realización de las labores de despedregado, nivelación y abancalamiento. | 1. Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzuari jakinaraztea noiz egingo diren harriak kentzeko, nibelatzeko eta zapaldatzeko lanak. |
| 2. Realizar la ejecución de las operaciones aprobadas, cumpliendo los plazos comprometidos del ejercicio financiero en que se solicitará el pago de cada operación. Los beneficiarios **asumirán todas las responsabilidades que se deriven de la realización de las actividades previstas en las solicitudes aprobadas.** | 2. Onartutako eragiketak egitea, eragiketa bakoitzaren ordainketa eskatuko den finantza ekitaldian onartutako epeak betez. Onuradunek **beren gain hartuko dituzte onartutako eskaeran ezarritako jardueren ondoriozko erantzukizun guztiak.** |
| 3. | 3. |

3. **Comunicar** al Servicio de Viticultura y Enología (Casa del Vino) de Laguardia **la modificación de cualquier circunstancia** que afecte a alguno de los requisitos exigidos y tenidos en cuenta para la aprobación de la solicitud. Todo cambio que se produzca de titular, de parcela o de alguna de las características de las parcelas indicadas en la solicitud deberá ser previamente solicitado a la Diputación Foral de Álava, debiendo esperar la autorización de la misma para poder efectuar el cambio.

4. **Comunicar**, en caso de que se pretenda solicitar **anticipo** para alguna de las operaciones incluídas en la solicitud de ayuda, la cuantía del anticipo y el ejercicio financiero en el que se va a solicitar el pago.

5. Necesidad de **mantener el cultivo y las acciones subvencionadas un mínimo de 10 años** desde la campaña siguiente a la que se solicitó el pago. Así mismo deberán permanecer en la misma explotación por el mismo periodo, a no ser que se hayan subrogado los derechos y obligaciones derivados de la aprobación de la ayuda a otro viticultor

. .

3. Guardiako Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzuan (Ardoaren Etxean) jakinaraztea eskaera onartzeko bete behar diren betekizunen bati eragiten dioten **aldaketa guztiak.** Eskaeran adierazitako lurzatiak, titularrak edo lurzatien ezaugarriren bat aldatu nahi izanez gero, lehenengo baimena eskatu beharko zaio Arabako Foru Aldundiari, eta itxaron, harik eta baimen hori jaso arte.

4. Laguntza eskaeran sartutako eragiketaren baterako **aurrerakina** eskatu nahi bada, aurrerakinaren zenbatekoa eta ordainketa zein finantza ekitalditan eskatuko den **jakinaraztea**.

5. **Laborantza eta diruz lagundutako ekintzak gutxienez 10 urtez mantentzea** ordainketa eskatzen den kanpainaren hurrengotik aurrera. Gainera, diruz lagundutako lurrak ustiategi berean eduki beharko dira aldi horretan, laguntza onestearen ondoriozko eskubideak eta betebeharrak beste mahastizain bati subrogatu ez bazaizkio.

. .

## Requisitos de las operaciones

1. Los solicitudes de ayuda presentadas de forma colectiva  se realizarán en el marco de un acuerdo celebrado entre los viticultores participantes e incluirá la designación de un representante, encargado de las relaciones con la administración.

2. El número mínimo de viticultores que pueden constituir una solicitud colectiva será de 5.

3. La superficie total reestructurada o reconvertida será, al menos, de 10 ha para los planes colectivos y 0,3 ha para los individuales.

## Eragiketen betekizunak

1. Plan kolektiboak parte hartzen duten mahastizainen arteko akordio baten barruan gauzatu behar dira; akordio horretan, ordezkari baten izendapena ere izango da, zeinak administrazioarekiko harremanen ardura izango baitu.

2. Eskaera kolektiboetan gutxienez 5 mahastizain bildu behar dira.

3. Berregituratu edo birmoldatutako mahasti azalera gutxienez 10 hektareakoa izan behar da plan kolektiboetan eta 0,3 hektareakoa banakako planetan.

4. La superficie de la parcela de viñedo una vez reestructurada será, al menos, de 0,3 ha. No obstante, dicho límite podrá ser inferior si el número de parcelas tras la realización del plan es inferior al 80% de las iniciales. También podrá ser inferior a 0,3ha si es colindante con otra parcela del mismo viticultor. En los casos en que la medida se limite a acciones de reinjertado o cambio de sistema de conducción, la superficie mínima será la inicial.

5. El límite máximo de superficie a reestructurar por viticultor y año será de 25 ha.

## Actividades que se podrán subvencionar

Los objetivos de las ayudas serán los siguientes:

1. Participar en los costes de reestructuración y/o reconversión del viñedo en las siguientes líneas:

- **Reimplantación del viñedo.**
- **Mejora de las técnicas de gestión de viñedos (cambio de vaso a espaldera u otros sistemas de conducción).**
- **Reconversión varietal.**

2. Compensar a los viticultores participantes en el plan por la pérdida de ingresos derivada de la aplicación del mismo, que podrá adoptar una de las formas siguientes:

a)**La coexistencia** de vides viejas y nuevas durante **una campaña.**

b)**Compensación financiera.** Esta se concederá como **máximo durante dos campañas**. En el caso que la ayuda se solicite para una reconversión varietal o mejora de las técnicas de gestión, se concederá por una campaña.

.

4. Berregituratu ondoko mahasti azalera 0,3 hektareakoa izan behar da gutxienez. Hala ere, muga hori txikiagoa ere izan daiteke, baldin eta mahasti sailen kopurua, plana gauzatu ondoren, hasierako sailen kopuruaren % 80 baino gutxiago bada. Gainera, azalera 0,3 hektareatik beherakoa izan daiteke, baldin eta mahasti saila mahastizain beraren beste baten mugakidea bada. Neurria birmentatzea edo gidamodua aldatzea baizik ez bada, gutxieneko azalera hasierakoa bera izan behar da.

5. Mahastizain bakoitzak urtean 25 ha berregituratu ahal izango ditu gehienez.

## Zer jardueratarako jaso ahal izango den dirulaguntza

Laguntzek honako xede hauek izango dituzte:

1. Mahastia honako era hauetako batean berregituratzen edota birmoldatzen bada, kostuak ordaintzen laguntzea:

- **Mahastia birlandatzea**
- **Mahastiak kudeatzeko teknikak hobetzea (baso sistematik besorako sistemara edo beste gidamodu batzuetara aldatzea)**
- **Barietatea aldatzea**

2. Planean parte hartzen duten ekoizleei konpentsazioa ematea haren aplikazioaren ondoriozko sarrera galerengatik, honako modu hauetako batean:

a) **Kanpaina batean**, **aldi berean izatea** mahasti zaharrak eta berriak.

b) **Finantza konpentsazioa. Gehienez ere bi kanpainatan** emango da. Laguntza barietatea aldatzeko edo kudeaketa teknikak hobetzeko eskatzen bada, kanpaina baterako emango da.

.

**MUY IMPORTANTE**

- En estas ayudas el **método de medición de la superficie ejecutada** según el Reglamento UE 1150/2016 **es la SUPERFICIE VITÍCOLA FINANCIABLE (SVF)**, donde a diferencia del SIGPAC o registro vitícola **no computan las levantadas ni los cabeceros** y será la realmente ocupada por las cepas más una superficie equivalente a la mitad de una calle del viñedo a lo largo de todo el perímetro del mismo. Se aplicará para el pago de esta ayuda independientemente de la superficie aprobada.

PRESTAR ESPECIAL ATENCIÓN: ajustar las superficies solicitadas, teniendo en cuenta que pueden tener notables pérdidas (ribazos, elementos estructurales…).

La ayuda se calculará sobre la base de la superficie determinada por los controles sobre el terreno tras la ejecución.

Si no se ha ejecutado todas las acciones que formen parte de la operación global cubierta por la solicitud de ayuda inicialmente aprobada o modificada, por causas distintas a fuerza mayor o circunstancias excepcionales, la ayuda se puede ver reducida.

En el caso de plantaciones de viñedo sobre parcelas o recintos con pastos permanentes o terreno forestal se deberá disponer de la autorización de la autoridad competente (Servicio de Montes) y en su caso el cambio de uso SIGPAC.

**OSO GARRANTZITSUA**

- Laguntza hauetarako **landutako azalera neurtzeko metodoa,** 1150/2016 EB Erregelamenduaren arabera, **MAHASTIZAINTZA AZALERA FINANTZAGARRIA (MAF)** da; izan ere, Nekazaritza Lurzatiak Identifikatzeko Sistema Grafikoan (SIGPAC) edo mahastien erregistroan ez bezala, **ez dira zenbatzen ez altxatutakoak ez burualdekoak;** hortaz, azalera izango da mahatsondoek hartzen dutena gehi mahasti kale baten erdiari dagokiona, haren perimetro osoan zehar. Laguntza ordaintzeko hori aplikatuko da, onartutako azalera edozein dela ere.

OSO KONTUAN HARTU BEHAR DA eskatutako azalerak doitu behar direla, kontuan hartuta galera nabarmenak izan ditzaketela (ezpondak, egiturazko elementuak…).

Behin ekintzak burututa, landa kontrolek neurtutako azaleraren arabera ebatziko da laguntzaren kopurua.

Ezinbesteko arraizoiengatik edo salbuespeneko egoeragatik ez bada**,** onartutako edo aldatutako eskaeran agertzen diren osoko eragiketaren ekintzak ez burutzeak dirulaguntza murriztea ekar dezake.

Baldin eta mahastiak etengabeko larreak edo baso lurrak dituzten lurzati edo esparruetan landatu nahi badira, agintari eskudunaren baimena eduki beharko da (Mendi Zerbitzuarena) eta, beharrezkoa bada, erabilera aldatu beharko zaie lurzati horiei SIGPACen.

¿En qué casos no se podrán acoger a este régimen de ayudas? Entre otras:

1. Las operaciones que se hayan beneficiado de estas ayudas en los últimos 10 años, para una misma superficie de viñedo.

2. La plantación de viñedos con autorizaciones de Nuevas Plantaciones del cupo del Ministerio.

3. Las superficies plantadas con una autorización de nueva plantación, durante los primeros 5 años desde la fecha de comunicación de la plantación.

4. En las renovaciones normales de viñedos que hayan llegado al final de su vida natural.

Zer kasutan ezin da laguntza araubide hau aplikatu? Besteak beste:

1. Azken 10 urteetan mahasti sail bererako honelako laguntza bat jaso bada.

2. Mahastiak landatu nahi badira ministerioaren kupoko landaketa berriak egiteko baimenarekin.

3. Landaketa berriak egiteko baimenarekin landatutako azalerak, landaketa jakinarazi eta lehenengo 5 urteetan.

4. Bizitza naturalaren amaierara iritsi diren mahastiak normaltasunez berritzea.

5. Las operaciones de gestión diaria de un viñedo.

6. Los viñedos de aquellos titulares que contravengan la normativa vigente en materia de plantaciones de viñedo, para cualquiera de las superficies de viñedo de su explotación.

7. No tendrán derecho a la compensación por pérdida de renta las superficies arrancadas con anterioridad a la fecha de presentación de la solicitud de ayuda y no arrancadas dentro del plan.

8. Tampoco serán subvencionables las acciones realizadas con material de segunda mano.

9. Si el beneficiario a renunciado a una ayuda aprobada y no lo ha comunicado en el plazo establecido.

10. Si el beneficiario no ha solicitado el pago de una operación una vez finalizado el plazo establecido dentro del segundo ejercicio financiero posterior al que se solicitó la yuda, salvo causas de fuerza mayor o circunstancias excepcionales establecidos en la normativa.

11. No se auxiliarán acciones aisladas a excepción del sobreinjertado o del cambio de vaso a espaldera o a otro sistema de conducción.

12. Cuando las variedades que se quiera utilizar no estén autorizadas en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

5. Mahastiak kudeatzeko eguneroko lanak.

6. Mahastien landaketen indarreko araudia urratzen duten titularren mahastiak, ustiategiko edozein mahasti sailetarako.

7. Ez dute errenta galeragatiko konpentsaziorako eskubiderik izango laguntza eskaera aurkeztu aurretik erauzitako eta planaren barruan erauzi ez diren azalerek.

8. Bigarren eskuko materialekin egiten diren ekintzetarako ere ez da jasoko dirulaguntzarik.

9. Onuradunak onartutako laguntza bati uko egin eta ezarritako epean jakinarazi ez badu.

10. Onuradunak ez badu eragiketaren ordainketa eskatu, laguntza eskabidea eginiko finantza ekitaldiatik zenbatuta, bigarren finantza ekitaldiaren barneko ezarritako epean. Ez bada ezinbesteko edo salbuenespenko arrazoiengatik.

11. Ez da ekintza isolaturik lagunduko, salbu eta gainmentatzea edo baso sistematik besotarako sistemara edo beste gidamodu batzuetara aldatzea.

12. Erabili nahi diren barietateak Euskal Autonomia Erkidegoan baimenduta ez badaude.

## 2. COMUNICACIÓN DE FINALIZACIÓN Y SOLICITUD DE PAGO DE AYUDA POR OBRA TERMINADA.

Se presentará una vez finalizadas las operaciones en la forma y plazo establecido y siempre antes del 31 de julio del ejercicio FEAGA en el que se ha finalizado la operación.

Si se trata de una operación anual: en el ejercicio financiero siguiente al que se solicitó la ayuda, o si se trata de operación bienal: en los dos ejercicios financieros siguientes. La fecha irá en concordancia con lo aprobado en la solicitud inicial o sus modificaciones.

En el caso de ANTICIPOS dependerá si la operación es anual y/o bienal

No se pagará por operaciones no realizadas ni operaciones en las que no se hayan ejecutado todas sus acciones a menos que se haya autorizado previamente la modificación pertinente (para lo cual debe comunicarlo al Servicio de Viticultura y Enología) y salvo casos de fuerza mayor o circunstancias excepcionales.

Documentación necesaria para solicitar el pago:

- **Facturas originales con justificante de pago** y fotocopia de las mismas (planta certificada y en su caso desinfección)
- **Análisis de nematodos** en caso de desinfección
- **Certificados** de estar al corriente en **Hacienda y Seguridad Social o Autorizacion** a la administración a solicitarlo.
- **Cuaderno de Explotación** con el detalle de las labores realizadas.

## 2. BUKATUTAKO OBRAREN JAKINARAZPENA ETA LAGUNTZA ORDAINTZEKO ESKAERA

Ezarritako moduan eta epean aurkeztuko da, eragiketak amaitu ondoren, betiere eragiketa amaitu den FEAGA ekitaldiko uztailaren 31 baino lehen.

Urteko eragiketa bada: laguntza eskatu zen finantza ekitaldiaren hurrengoan, eta bi urteko eragiketa bada: hurrengo bi finantza ekitaldietan. Data bat etorri behar da hasierako eskaeran edo haren aldaketetan onartutakoarekin.

AURRERAKINA eskatuz gero, eragiketa urtekoa edo bi urtekoa den hartuko da kontuan.

Ez da ordainduko egin gabeko eragiketarik, ez eta ekintza guztiak gauzatu ez diren eragiketarik ere, dagokion aldaketarako baimena jaso (Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzuari jakinarazi ostean), eta ezinbesteko kasuetan edo salbuespenezko kasuetan izan ezik.

Laguntza eskatzeko aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- **Jatorrizko fakturak eta ordainagiriak** eta horien fotokopiak (landare material ziurtatua eta desinfekzioa),
- **Nematodoen analisia** (desinfekzioa eskatuz gero)
- **Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko** betebeharrak egunean dituela frogatzen duten **ziurtagiriak** edo administrazioak horien berri eskuratzeko **baimena.**
- **Ustiapen koadernoa,** egindako lanen xehetasunekin.

### Cuantías de las ayudas

### Laguntzen zenbatekoak

El pago de la ayuda se realizará en **base a baremos estándar de costes unitarios**, que incluyen los valores de las contribuciones en especie. Para determinar el cálculo de las ayudas se considerarán los costes de las acciones recogidas en el cuadro y la superficie vitícola financiable.

Asimismo, dentro del pago de la ayuda se podrá incluir la compensación por la pérdida de ingresos en la aplicación de la operación.

Laguntzaren ordainketa **kostu unitarioen baremo estandarren arabera** egingo da; horietan sartzen dira gauzazko ekarpenen balioak ere. Laguntzen kalkulua zehazteko, koadroan jasotako ekintzen kostuak eta finantza daitekeen mahasti azalera hartuko dira kontuan.

Horrez gain, laguntzaren ordainketaren barruan, eragiketa gauzatzean galdutako diru sarreren konpentsazioa sartu ahal izango da.

## CONDICIONALIDAD, requisitos a tener en cuenta en estas ayudas

Durante los tres años siguientes a la percepción de las ayudas a la reestructuración y reconversión del viñedo será necesario cumplir una serie de **normas medioambientales, buenas condiciones agrarias y requisitos legales de gestión que establece el Reglamento UE 1306/2013 del Parlamento Europeo y del Consejo de 17 de diciembre de 2013, y el Decreto 20/2016 del 16 de febrero o normativa que lo modifique o sustituya.**

De esta forma si se constata que un beneficiario a lo largo de los tres años siguientes al pago no ha cumplido con alguna de las normas o requisitos establecidos, el importe de la ayuda se reducirá o cancelará, parcial o totalmente, dependiendo de la gravedad, alcance, persistencia y repetición del incumplimiento y el beneficiario deberá reintegrar la cuantía correspondiente.

A efectos de cómo afecta la condicionalidad en el viñedo, las obligaciones que los agricultores/beneficiarios deben cumplir están comprendidas en los siguientes ámbitos:

- Buenas condiciones agrarias y medioambientales
- Medio ambiente
- Salud pública, zoosanidad y fitosanidad

## BALDINTZAK: laguntza hauetan kontuan hartu beharreko betekizunak

Mahastia berregituratzeko eta birmoldatzeko laguntzak jaso ondoko hiru urteetan nahitaez bete beharko dira honako bi xedapenetan ezartzen diren **ingurumeneko arauak, nekazaritzako baldintza egokiak eta legezko betekizunak: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 17ko 73/2009 EB Erregelamendua eta otsailaren 16ko 20/2016 Dekretua, edo hori aldatzen edo ordezten duen arautegia**.

Beraz, frogatzen bada onuradun batek laguntza ordaindu ondoko hiru urteetan ez duela bete ezarritako arau edo betekizunetako bat, laguntzaren zenbatekoa murriztu edo ezeztatuko da (zati bat edo osorik), urraketaren larritasunaren, garrantziaren, iraupenaren eta kopuruaren arabera, eta onuradunak kopurua itzuli beharko du.

Baldintzek mahastiari nola eragiten dioten zehazteko, nekazariek edo onuradunek bete beharrekoak honako esparru hauetan jasotzen dira:

- Nekazaritza eta ingurumen baldintza onak
- Ingurumena
- Osasun publikoa, animalien osasuna eta landareen osasuna

No obstante se debe tener en cuenta que si el viticultor beneficiado tiene registrado otro tipo de cultivos agrarios, forestales y/o ganado **la condicionalidad se aplicará al conjunto de la explotación.**

Entre los elementos que afectan a la condicionalidad en el viñedo se debe **prestar especial atención al mantenimiento de elementos estructurales y/o el levantamiento de los pastos permanentes,** ya que **no se puede efectuar una alteración de estos**, principalmente de márgenes de parcelas, como lindes y ribazos, terrazas de retención, islas de vegetación, árboles, roturación de los yecos etc., **sin la autorización de la autoridad competente (Servicio de Montes).**

La condicionalidad en el viñedo regula asimismo otros elementos como pueden ser los siguientes: quemas de rastrojos o restos de cosecha, gestión adecuada del laboreo, podas y malas hierbas, prevención de la erosión, conservación de las terrazas, protección de aves, limitación de los vertidos, utilización correcta de fitosanitarios…

Se puede solicitar **asesoramiento e información** a los servicios técnicos de la Casa del Vino especialmente a la hora de realizar las actuaciones en relación a algunos aspectos importantes de la normativa.

Por otro lado, se debe tener en cuenta la **obligatoriedad de llevar el cuaderno de explotación** por todas las explotaciones agrícolas y ganaderas de la Comunidad Autónoma del País Vasco. El incumplimiento de la obligación de llevar el cuaderno adecuadamente o la anotación de datos falsos conllevarán las consecuencias previstas en el Decreto 20/2016 relativos a la condicionalidad en el País Vasco.

Hala ere, mahastizain onuradunak nekazaritzako, basogintzako edo abeltzaintzako beste labore batzuk edo ganadua erregistratuta baditu, **baldintzak ustiategi osoari aplikatuko zaizkio.**

Mahastiek bete beharreko baldintzak alda ditzaketen elementuen artean, **bereziki zaindu beharrekoa da egitura elementuen mantentze egoera eta/edo etengabeko larreen altxatzea, agintari eskudunaren (Mendi Zerbitzua) baimenik gabe ezin baita halakorik aldatu**, batez ere lurzatien ertzak (hala nola, mugak eta ezpondak), euste terrazak, landaredi uharteak, zuhaitzak, landu gabeko zonen luberritzea, eta abar.

Mahastien baldintzen barruan araututa daude beste elementu batzuk ere, hala nola: uztondoak eta uzta hondarrak erretzea; laborantza, inausketa eta belar txarrak behar bezala kudeatzea; higadura prebenitzea; terrazak egoki zaintzea; hegaztiak babestea; isuriak mugatzea; gai fitosanitarioak ongi erabiltzea…

Ardoaren Etxeko zerbitzu teknikoei **aholkularitza** eta **informazioa** eskatu ahal zaizkie, batez ere araudiko puntu garrantzitsu batzuei buruz.

Bestalde, **ustiategiko koadernoa betetzea nahitaezkoa** da, eta hori EAEko nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategi guztiek egin behar dute. Koadernoa ez bada betetzen edo datu faltsuak jartzen badira, EAEko baldintzei buruzko 20/2016 Dekretuan aurreikusitako ondorioak aplikatuko dira.

## Normativa reguladora

Se muestra a continuación la normativa de aplicación específica de gestión de estas ayudas. Se debe tener en cuenta, sin embargo, que existe normativa adicional de apoyo o modificaciones posteriores que puede estar implicada en determinados aspectos de las ayudas.

- Reglamento CE nº 1308/2013 del Consejo, por el que se establece la organización común del mercado vitivinícola, en lo relativo a los programas de apoyo, el comercio con terceros países, el potencial productivo y los controles en el sector vitivinícola.
- Reglamentos Delegados CE 555/2008 de la Comisión, de 27 de Junio de 2008, 2016/1149 y 2016/1150 de la Comisión, que se refieren a los programas nacionales de apoyo en el sector vitivinícola y que modifican el Reglamento (CE) 555/2008 de la Comisión
- Decreto 26/2019, de 26 de febrero, de desarrollo y aplicación en la Comunidad Autónoma de Euskadi de las medidas de apoyo europeo a las operaciones de reestructuración y/o reconversión del viñedo y las Ordenes que lo modifican.
- Orden Foral 162/2020 de 1 de junio por la que se aprueba la convocatoria de ayudas a la reestructuración y /o reconversión de viñedos y la Orden Foral 306/2020 de 2 de octubre por la que se modifica la Orden Foral 162/2020 que aprueba la convocatoria de aprobación a la reestructuración y/o reconversión de viñedos campañas 2021,2022 y 2023.

## Araudia

Laguntza hauek kudeatzeko berariazko araudia dago. Hala ere, kontuan hartu behar da araudi osagarria dagoela, bai eta laguntzen puntu batzuei eragin diezaieketen aldaketak ere.

- Kontseiluaren 1308/2013 EE Erregelamendua, zeinaren bidez ezartzen baita ardogintzako eta mahastizaintzako merkatu bateratuaren elkartea, hirugarren herrialdeentzako merkatua, ekoizpeneko potentziala eta ardogintzako eta mahastizaintzako sektorearen kontrolak.
- Europako Batzordearen 555/2008 (2008ko ekainaren 27koa) eta 2016/1150 erregelamendu eskuordetuak, mahastizaintza sektoreari laguntzeko programa nazionalei buruzkoak, zeinek 555/2008 (EE) Erregelamendua aldatzen baitute.
- 26/2019 Dekretua, otsailaren 26koa, zeinaren bidez garatzen eta aplikatzen baitira mahastiak eta haien ordezkoak edo aldaketak berregituratzeko eta/edo birmoldatzeko eragiketetarako Europako laguntza neurriak Euskal Autonomia Erkidegoan eta aldatzen duten Aginduak.
- 162/2020 Foru Agindua, ekainaren 1ekoa, mahastiak berregituratzeko eta/edo birmoldatzeko laguntzen deialdia onesten duena, eta 306/2020 Foru Agindua, urriaren 2koa, mahastiak berregituratzeko eta/edo birmoldatzeko 2021eko, 2022ko eta 2023ko kanpainak onesteko deialdia onesten duen 162/2020 Foru Agindua aldatzen duena.

## DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN EKINTZEN ETA ZENBATEKOEN KOADROA

| JARDUERA | EKINTZA | DIRUZ LAGUNDU DAITEKEEN ZENBATEKOA |
|---|---|---|
| A) Mahastiak birlandatzea | Erauzketa (mahatsondoak jasotzea barne) | 1.347 €/ha |
| | Lurzorua prestatzea (1) | 1.691 €/ha |
| | Desinfektatzea (2) | 2.930 €/ha |
| | Harriak kentzea (3) | 1.259 €/ha |
| | Lursaila berdintzea (3) | 1.736 €/ha |
| | Zapaldatzea edo lehendik diren terrazak hobetzea, makineria egokia erabiliz (3), (4) | 19.358 €/ha |
| | % 30etik gorako maldak harrizko hormez zapaldatzea (3), (4) | 23.952 €/ha |
| | Landaketa: landaketa mekanikoa (laser edo GPS bidezko landatzeko tresna) edo eskuzkoa (zuintzea, markatzea, landatzea, estaltzea, ziriak jartzea) eta landatzea. | 1,62 €/ale |
| | Landarea inguratzen duten plastikozko hodiak, untxien aurka babesteko landaketa egiten den unean (jartzea eta eusteko hagaxka edo kanabera ere bai) | 0,48 €/ale |
| | Gidamodua (jartzea ere bai) | |
| | Besorakoa: materiala eta besorakoa jartzea | 4.362 €/ha |
| | Oholesia: materiala eta oholesia jartzea | 5.310 €/ha |
| | Banakako altxatzeak: materiala eta zutoina jartzea (5) | 2,90 €/ale |
| B) Mahastiak berregituratzea | Gainmentatzea: zotzak prestatzea eta jartzea | 1,08 €/ale |
| C) Mahastiak kudeatzeko hobekuntza teknikoak | Baso sistematik besotarako sistemara edo beste gidamodu batzuetara aldatzea (6): makilak jartzea, lotzea, besoak moztea, zauriak tratatzea eta hondakinak kentzea | 1.353 €/ha +gidamodua, hura jartzea ere bai |

(1) Ongarritzea: Lurzoruaren analisia egin behar da, eta teknikari baten gomendioei jarraitu.
(2) Lurzoru lagin baten analisi nematologikoa egin behar da.
(3) Nekazariak mahastizaintza zerbitzua jakinaren gainean jarri behar du, bitarteko ikuskaritza egiteko.
(4) Nekazaritzako teknikari baten memoria edo proiektua behar da.
(5) Zur tratatuzko edo beste material bateko hesolak behar dira, gehienez ere 1,5 m-ko altuerakoak eta 6 cm-ko diametrokoak.
(6) Besorako sistema tradizionalaz bestelako egiturak ere jar daitezke, baldin teknikoki justifikatuta badaude.

HARTU GOGOAN: Besoetarakoa instalatzea ezin daiteke ekintza bakarra izan. Horrekin batera landaketa edo eraldaketa inausketa ere egin behar da, urtebeteko errenta galerarekin.

## CUADRO ACCIONES E IMPORTES SUBVENCIONABLES

| ACTIVIDAD | ACCIÓN | IMPORTE SUBVENCIONABLE |
|---|---|---|
| A) Reimplantación de viñedos | Arranque (incluida la recogida de cepas) | 1.347 €/Ha |
| | Preparación del suelo (1) | 1.691 €/Ha |
| | Desinfección (2) | 2.930 €/Ha |
| | Despedregado (3) | 1.259 €/Ha |
| | Nivelación del terreno (3) | 1.736 €/Ha |
| | Abancalamiento o mejora de terrazas existentes con maquinaria adecuada (3), (4) | 19.358 €/Ha |
| | Abancalamiento con muros de piedra en pendientes mayores del 30% (3), (4) | 23.952 €/Ha |
| | Planta y plantación: Plantación mecánica (plantadora láser o GPS) o manual (replanteo, marcar, plantar, tapar, tacuñar)y planta. | 1,62 €/unidad |
| | Tubos de plástico que rodean la planta para protección contra conejos en el momento de la plantación (incluida la colocación y la varilla o caña de sujeción) | 0,48 €/unidad |
| | Sistema de conducción (incluida colocación) | |
| | Espaldera: Material y colocación de la espaldera | 4.362 €/Ha |
| | Empalizada: Material y colocación de la empalizada | 5.310 €/Ha |
| | Elevación individualizada: Material y colocación de poste (5) | 2,90 €/unidad |
| B) Reconversión de viñedos | Sobreinjertado: Preparación de púas e injertado. | 1,08 €/unidad |
| C) Mejora de técnicas de gestión de viñedos | Cambio de vaso a espaldera o a otro sistema de conducción (6): echar varas, atar, cortar brazos, tratamiento de heridas y retirar restos | 1.353 €/Ha + sistema de conducción incluida colocación |

(1) Abonado: Se requiere análisis de suelo con recomendaciones de un técnico
(2) Se requiere análisis nematológico de muestra de suelo.
(3) Se requiere comunicación del agricultor al Servicio de Viticultura para realizar inspección intermedia.
(4) Se requiere memoria o proyecto elaborado por técnico agrario.
(5) Se requieren estacas de madera tratada, de altura superior a 1,5 m y diámetro mínimo 6 cm
(6) Se pueden contemplar estructuras alternativas a la espaldera tradicional siempre que estén técnicamente justificados.

RECORDATORIO: la instalación de espaldera no puede ser acción aislada. Debe ir acompañada de plantación o poda de transformación con un año de pérdida de renta.